


LIBURUEN ESPURGAKETAK FRANKISTEK EGINDAKO ERREPRESIOAREN ADIBIDE BAT

Mikel ZABALETA



1936ko irailaren 12an frankistak gure herrian sartu ziren. Ordurarte errepublikarrek egindako aldaketa guztiak baztertu zituzten. Aldaketa horien artean, heziketarena garrantzitsuenetarikoa bat zen, eta bere txanda ere iritsi zitzaion. Kasurik onenean irakasle abertzale edo ezkertiarrek bere lanpostuak galdu zituzten eta herri bakoitzean aginte berriak "Junta Local de enseñanza" bat izendatu zuten: alkate, erretore eta maixu leialak edo "adictos"-ez osatuz.

Lehenik eta kezka garrantzitsuena bezala Junta honek irakasle-
en depuraketari eman zion hasiera. Abertzaleak izateagatik bi irakasle lanik gabe aurkitu ziren, ANA BIZKARRONDO (FLORENTINO LOIDI zinegotzi abertzalearen emaztea) eta FRANCISCO AUZMENDI. Beste bat erahila izan zen: MIGUEL DE IRASTORZA.

Irailko 16an "Junta Carlista de Guerra" emandako arauak udaletxera iritsi ziren eta zera zioten:

1-Herri bakoitzean "Consejo Local de Primera Enseñanza" osatu behar da. Erakunde honetan pertsona leialak eta erretore jauna sartuko dira.

2-Hilaren 15ean kurtsoari hasiera emango zaio.

3-Eskola guztietan Espainiako bandera ipiniko da eta gela guztietan gurutze saintuak eta Espainiako mapak jarri beharko dira.

4-Irakaskuntza guztiz katoliko eta "españolista" izan beharko da, eta Gure Aita otoitz eginez ikastorduak hasiko dira.

5-Haurrak, igandetan Meza nagusira derrigorrez joan beharko dute bere irakasle eta andereñoekin.

6-Erdara ez dakiten haurrei euskaraz irakatsiko zaie, erdara ahalik eta laisterren ikas dezaten ahalegin guztiak eginez.

Prozesu hau jarraitzerakoan liburuekin topatu ziren eta aurkitu zutena ez zitzaien batere gustatu "Espainia berrian" ideia aurrerakoi edo gutxienez ez eskuindarrak ez zuten lekurik eta horrexegatik liburutegiak espurgatzea erabaki zuten.

1937ko Otsailaren 1ean JOSE MARIA ARELLANOk, Bizkaia eta Gipuzkoako Gobernadoreak, "Orden Circular" bat bidali zuen asmo hauek adieraziz.

Berak esaten zuen: "Sería inútil [...] el valor e inteligencia de-
rrochados por los ilustres caudillos si en la retaguardia quedasen
almacenadas las semillas de la revolución", eta aurrerago "...si el
Poder público prohíbe la circulación de la moneda falsa, tiene el
deber de impedir la propaganda de la moneda falsa intelectual".

Horretarako, agintari berriek, herri guztietan "Junta Local
Depuradora" bat osatzea erabaki zuten. Junta honek liburu guz-
tien azterketa eta sailkapenari ekin behar zion. Sailkapen honen
bitartez Erljio, Morala eta Aberriari ondo legozkien liburuak
mantenduko lirarteke eta beste aldetik, urrengo motako liburuak
baztertuko lituzke:

"Congregación Romana del Santo Oficio" en Indizean daude-
nak. Erljio, morala eta ohitura zuzenen kontrakoak direnak.
Sozialismo, Komunismo, Anarkismo eta Masoneriaren propa-
ganda egiten dutenak. Eta bukatzeko Espainiako Batasunaren
aurka dauden liburu guztiak, kasu honetan abertzale argitarape-

nak direnak.

Egun gutxi pasa ondoren, 19 egunean "Junta Local Depuradora" osatu zen gure herrian. Hauek dira osatu zutenak.

_CARMELO RECALDE, alkatea. Karlista izan zen betidanik eta 1913an zinegotzia izan zen lehenengo aldiz. Errepublikak garaiaren Tradizionalisten buruzagietako bat bilakatu zen eta horregatik guda hasi bezain laister errepublikanoek atxilotu egin zuten mehatxu eta tratu txarrak jasanez. Frankistak sartu zirenean alkate izendatu zuten eta "Estatu Berria"ren antolaketaz arduratu zen bere boterea oso murrizta izan arren. Batetik Komandante Militarra herrian bertan zegoelako eta bestetik beti Gobernadoreari baimena eskatu behar ziolako, edozer zelarik ere. Hala ere bere pisua herrian handia zen, izandako errepresioaren arduradun handiena izanik.

_FRANCISCO AYESTARAN, bikario jauna. Erretore izateagatik zuen postu bat "Junta Local Depuradora"n. Nahiz eta frankistek "adicto" bezala onartu, ez zuen gogoz hartu bere lan berrietan. Hala eta guztiz ere ez zuen ezer egin, guk dakigunez, GERVASIO ALBISU eta MARTIN LEKUONAREN alde. Hauek militarrek afusilatutako herriko beste bi apaizak izan ziren.

_PEDRO INDABEREA ZAPIRAIN. Hirugarren kide hau alkateak izendatu zuen, beretzat benetan pertsona fidagarria zena. Karlista amorratu hau, apaiza, irakaslea eta zaharren egoitzako kapelaua izan zen. Gerra aurretik Zamalbide eskolan irakasle zelarik bere ikasleen gurasoekin tratu txar eta zigor gogorrek emategatik iskanbila ugari izan zituen. Herriaren okupazioarekin indar handia hartu zuen Indabereak bere leialtasunaren saria jasoz. Jaun ta jabe herriko eskolan sartu zen, berak ezarritako irakasteko erak oraindik egun bizirik dirau adineko pertsona askoren artean.

Junta osatu zen egun berean lanari ekin zion eta "Junta Provincial Depuradorari" baztertutako liburuen zerrenda bidali zion. Zerrenda hau hogeitamar izenburuz osatua zegoen, hauek aztertuz Junta honen ikusmolde eta pentsakerak jakin ditzakegu. Hauetako liburu batzuk honelako zerrenda batetan ikustea gaur sinestezina egiten zaigu, baina garai haietan abertzale edo ezker-tiar usaina zeukan edozein liburu susmagarria suertatzen zen eta beraz, galerazi behar zuten. Izan ere hau dena ulertzeko liburuen zerrenda ikustea besterik ez dago:

HISTORIA VASCA (3 ALE)

BIZKAYA POR SU INDEPENDENCIA (ale 1)

BIOZKADAK (90 ale)

LORETZOAK (40 ale)

ANDANZAS Y MUDANZAS DE MI PUEBLO (56 ale)

LA CASA SOLAR VASCA (3 ale)

TXINDOR (18 ale)

GAZTEAK: SED CASTOS (2 ale)

YAKINTZA (18 ale)

LUTELESTI (15 ale)

BLANCOS Y NEGROS (ale 1)

EL PRIMITIVO HOMBRE EN EL PAIS VASCO (ale 1)

CASTILLOS MEDIEVALES DE NAVARRA (1, 2 eta 3 zenba-

kiak)

GAROA (ale 1)

NARRACIONES VASCAS (ale 1)

DON GARCIA ALMORABID (ale 1)

HISTORIA DE LA MONJA ALFEREZ (ale 1)

ANA MARIA (ale 1)

DOCTRINA DE MONROE (ale 1)

AL SERVICIO DE LA JUSTICIA (ale 1)

NI ORIENTE NI OCCIDENTE (ale 1)

AMOUR DEFENDU (ale 1)

EL SOL (ale 1)

ITXALDIAK (2, 4, 5 eta 6 zenbakiak)

COLECCION UNIVERSAL (81, 82, 128, 140, 231, 244, 245, 269 zenbakiak eta beste bat zenbakirik gabe)

LA REVOLUCION FRANCESA (2 eta 3 zenbakiak)

VIOLETAS ENTRE CIENO (ale 1)

ATZETORKIA (ale 1)

LA VIDA Y LA MUERTE (ale 1)

EUGENIUSZ FRANCKOWSKI (ale 1)

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS (2 zenbakia)

Andoainen RODRIGUEZ RANZek egin duen azterketa konparatzen badugu, gure herriko zerrenda osatzen duten liburuak desberdinak eta kopuru txikiagoan agertzen direla esan dezakegu. Baina gaiak berdintsuak dira: euskal kultura (euskaraz edo erderaz idatzita), abertzaletasunaren textuak, eta moral katoliko eta atzerakoiarekin ados ez dauden izenburuak.

Zoionez gaur egun horrelako gatazkak urruti xamar geratzen zaizkigu. Zaharrei berriz gertatu behar ez luken ametsgaizto bat irudituko zaie, eta gazteei agian aintzinako xeblekeri farregarri bat besterik ez. Dena den, gure kondairaren gertakizun bat da eta berri emateko beharra zegoen, gertatu dena ezagutzeko eta errepika ez dadin bitartekoak jarritz.

* * * * *

Artikulu hau egiteko erabili dugun material guztiak hauek dira:

BIBLIOGRAFIA:

RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: "Diktaduraren errepresio kulturalaren ezaugarri bat: Eskoletako liburutegien espurgaketa". Bilduma 2 Errenteriako Udal Artxiboaren Aldizkaria 1988, 187-193 orriak.

DOKUMENTOAK:

S.B. N.5 S.V. L.9 E.1

S.B. N.5 S.V. L.9 E.2